

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urtarrilaren 23a

13. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

—Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (28. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio-txostena, Burlatako Udalari buruzkoa, 2012ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburua (7. or.).
- III. Norainokoa (8. or.).
- IV. 2012ko kontu orokorrari buruzko iritzia (9. or.).
 - IV.1. Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorra. (9. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (9. or.).
 - IV.3. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2012ko abenduaren 31n (9. or.).
 - IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (13. or.).
- V. Udalaren 2012ko kontu orokorraren laburpena (14. or.).

V.1. 2012ko aurrekontu bateratuaren bete-teareen egoera-orria (14. or.).

V.2. 2012ko aurrekontu-emaizta bateratua (15. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2012ko abenduaren 31n (15. or.).

V.4. 2012ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratua (16. or.).

V.5. Galera eta irabazien kontu bateratua 2012an (17. or.).

VI. Udalari eta haren menpeko enteei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (18. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (18. or.).

VI.2. Langileak (19. or.).

VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (21. or.).

VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (22. or.).

VI.5. Inbertsioak (22. or.).

VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (23. or.).

VI.7. Hirigintza (24. or.).

VI.8. Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea, S.L. (25. or.).

VI.9. Ripaberri Desarrollo Urbano, SL (26. or.).

VI.10. Erripagaña Desarrollo Urbano, SL (27. or.).

Eranskina. 2012ko kontu orokorraren oroitidazkia.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean:


www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganberak Burlatako Udalaren eta haren menpeko enteent 2012ko kontu orokorraren erregulartasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Burlatako udalerrriak 2,12 km²-ko azalera du, eta 2012ko urtarrilaren 1ean 18.162 biztanle ditu.

Udalaren eta haren menpeko erakundeentz osatzen duten ondoko grafikoan agertzen da:



2012ko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

- Sektorre publiko administratiboa, Udalak berak eta haren erakunde autonomoek (Kirol eta Kultur patronatuak) osatzen dutena. Honakoak dira haren 2012ko datu nagusiak:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitortutako eskubi-deak	Langileak, 2012-12-31n
Udala	13.322.464	14.371.489	145
Kirol Patronatua	2.024.794	2.085.435	33
Kultur Patronatua	813.173	828.957	6
Bateratzeko doitzeak	- 1.272.479	- 1.272.479	
Guztira	14.887.952	16.013.402	184

Udalak bere erakunde autonomoentzat 2012an egin dituen ekarpenak hauek izan dira: Kirol Patronatuari 571.887 euro, eta Kultur Patronatuari 700.592 euro.

- Sektorre publiko enpresariala. 2005ean, Udalak Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea SL sortu zuen. Kapital guztia Udalarena da. Sozietate horrek ehuneko 51ko parte-hartzea du bitariko sozietate hauetan: 2008an sortutako Ripaberrri Desarrollo Urbano SL eta 2010ean sortutako Erripagaña Desarrollo Urbano SL. Bi sozietate horietan bazkide pribatua bera da. 2012an datu ekonomiko hauek dituzte (emaitzen kontua):

Enpresa publikoa	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Langileak, 2012-12-31n
Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietate	3.544.482	578.148	2.966.334	1

tea, S.L.				
Ripaberri Desarrollo Urbano, S.L.	1.522.662	1.316.078	206.584	-
Erripagaña Desarrollo Urbano, S.L.	38.040.668	31.210.690	6.829.978	-

Sozietate horiek udal bulegoetan dute beren egoitza soziala.

Udala, gainera, honako hauetako kide da:

a) Iruñerriko Mankomunitatea: haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua eta eskualdeko hiri garraioari dagozkion zerbitzuak eta taxi zerbitzuak, bai eta ibai-parkearen kudeaketa ere.

b) 2010eko irailean, Burlatako eta Atarrabiako udalek Hilarión Eslava Musika Eskolako Partzuergoko estatutuei hasierako onespena eman zieten.

Zerbitzu horiek guztiek ondoko taulan adierazten diren gastuak eragin dizkiote Udalari:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2012an
Eskualdeko garraio publikoa	286.807
Ibai parkea	50.892
Musika Partzuergoa	269.513

Laburbilduz, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haien emateko modua ondoko taulan ageri direnak dira:

Zerbitzua	Udala	Merkataritza sozietate osoa	Mankom. Partzuergoa	Zerbitzu-kontratuak	Errent.	Merkat. soz. mistoa
Zerbitzu administratibo orokorrak	X					
Oinarrizko gizarte zerbitzua	X					
Etxez etxeko laguntza zerbitzua	X					
0-3 urteko haur eskolak				X		
Hirigintza	X	X				X
Lorategiak	X					
Garraio publikoa			X			
Uraren ziklo integrala			X			
Hiri hondakinen kudeaketa			X			
Liburutegia-ludoteka	X					
Musika eskola			X			
Kaleen eta bideen mantentze-lanak	X					
Kirola	X					
Kirol jardueren kudeaketa	X			X		
Udal kiroldegia	X				X	
Babestutako enplegu soziala	X					
Diru-bilketa exekutiboa				X		
Familien arretarako zentroa	X					
Familien arretarako zentroaren laguntza juridikoa				X		

Toki entitate honi aplikatzekoa zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Orokorra:

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.

Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituena.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena.

Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

35/2002 Foru Legea, lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa.

Urriaren 26ko 13/2009 Errege Lege Dekretua, Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Estatuko Funtsa sortu zuena.

Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraukortsunari buruzkoa.

Abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legea, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege Dekretua, defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, tributu eta finantza arloko presako neurriei buruzkoa.

Ekainaren 29ko 2/2012 Legea, 2012rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.

Uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretua, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa.

Abenduaren 28ko 27/2012 Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko.

Abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako eraginarekin, erosahalmenaren galera dela-eta.

Martxoaren 14ko 3/2012 Foru Legea, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea aldatu eta haren indarraldia luzatzen duena.

Abenduaren 21eko 246/2011 Foru Dekretua, Kontratuei buruzko Foru Legearen Europar Batasuneko atalaseak eguneratzen dituena.

- Berariazko araubidea:

2012ko aurrekontuaren betetze-oinarriak.

Tributuak arautzen dituzten ordenantzak.

Diru-laguntzak emateari buruzko oinarri arautzaileak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2012ko kontu orokorraren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo; sozietate publikoei buruzko iruzkin batzuk ere biltzen ditu.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2012ko ekitaldiko kontuei buruz eginiko oroitidazkiarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Burlatako Udaleko eta bere erakunde autonomoetako eta enpre-setako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzagatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Burlatako Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia/ondorioa agertzea:

- Ea Burlatako Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2012ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- Udalak 2012an izandako finantza-jarduerari aplikatzekoa zaion legeriaren betetze-maila.
- Udalaren finantza-egoera 2012ko abenduaren 31n.
- Zenbateraino betetzen diren Ganbera honek 2012ko ekitaldiari buruzko txostenean emandako aholkuak.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzat jotzen diren aholkuak, Udalak eta haren menpeko entitateek ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate-nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edo/eta osatze aldera.

Zehaztu beharra dago ezen txosten hau idazteko garaian, fiskalizatutako ekitaldiko, alegia, 2012ko ekitaldiko Udalaren kontu orokorra Osoko Bilkurak onetsi gabe dagoela, udalbatzako ki-deen babes nahikorik ez duelako.

III. NORAINOKOA

Burlatako Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Toki entitatearen beraren eta haren erakunde autonomoen kontua: aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.
- Udala akzio guztien jabe den udal sozietatearen urteko kontuak.
- Kontu orokorraren eranskinak: Udalaren eta haren menpeko erakundeen egoera-orri bateratuak, oroitidazkia, zorraren egoera-orria, kontu-hartzailetzaren txostena eta sozietate mistoen kontuak.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren Fiskalizazio Eskuliburuan garatutako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaprobea edo prozedura tekniko guztiak bildu dira; prozedura horien barruan, laginketaren teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa erabili da.

Zehazki, Udalari eta haren erakunde autonomoei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarritzko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrol alderdi nabarmenenak.

Sozietate publikoen 2012ko urteko kontuei dagokienez, lana, funtsean, honakoa izan da: sozietate hauen eragiketa nagusiek, sektore publikoko entitateak diren aldetik, aplikatzekoak zaizkien lege-printzipioak –batez ere kontratazio administratiboari buruzkoak eta Udalak kontratazio horiekiko aplikatu behar dituen kontrol mekanismoei buruzkoak– betetzen dituzten begiratzea.

Udalaren Hirigintza Sozietatearen eta haren partaidetza duten sozietate mistoen (Ripaberri Desarrollo Urbano S.L. eta Erripagaña Desarrollo Urbano S.L.) 2012ko urteko kontuek badute kanpoko kontu-ikuskariak egindako finantzen kontu-ikuskaritzaren txosten bat, eta haien iritzi profesionaletan salbuespenik gabekoa izan da.

IV. 2012ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Burlatako Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau atera dugu:

IV.1. UDALAREN 2012ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA.

- Burlatako Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta haren eguneratzea oraindik egin gabe dago; horregatik, ezinezkoa izan da ibilgetu finkatuaren kontabilitate-saldoa arrazoizkoa den egiaztatzea; saldo hori, 2012ko abenduaren 31n, 105,2 milioi eurokoa zen.

Arestian aipaturiko salbuespenaren ondorioei dagokienez izan ezik, Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi behinenetan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko beharrezko informazioa biltzen du, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2012ko ekitaldian Udalaren jardura ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezketasun printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2012ko ABENDUAREN 31n

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 15,8 milioi euroko gastuak eta 16,7 milioi euroko diru-sarrerak dauzka; zenbateko horri 2,7 milioi euro gehitu zaizkio aurrekontu-aldaketek bitartez, eta horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 18,5 milioi eurokoak dira gastuetarako eta 19,4 milioi eurokoak diru-sarrerarako; egin diren aldaketek inbertsio errealek kapituluak dute batez ere eragina.

Aitortutako betebeharrak 14,9 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 81eko betetze-maila izan dute. Nabarmentzekoa da, funtsean, inbertsioen betetze-maila txikia izan dela –ehuneko 27koa–.

Aitortutako eskubideek 16 milioi euro egiten dute, eta betetze-maila ehuneko 82,5ekoa izan da.

Gastuen izaerari begiratuz gero, gastu arruntek eta inbertsioek gastu guztien ehuneko 92 eta ehuneko 4 osatzen dute, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntak guztizkoaren ehuneko 96 dira; diru-sarreraren ehuneko 47, berriz, jasotako transferentzietatik heldu dira (ehuneko 41 transferentzia arruntetatik eta ehuneko 6 kapital-transferentzietatik), eta ehuneko 4 inbertsio errealek besterentzetatik heldu dira.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu diren Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Ehunekoa	Finantzaketa-iturria	Ehunekoa
Langileak	53	Tributu bidezko diru-sarrerak	49
Bestelako gastu arruntak	39	Transferentziak	47
Inbertsioak	4	Ondare bidezko diru-sarrerak	4
Finantza-zama	4	Zorpetzea	-
Guztira	100	Guztira	100

Hona Udalaren 2012rako aurrekontuaren betetzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2011koarekiko alderaketa:

	2011	2012	Aldea (%), 2012/2011
Aitortutako betebeharrak, guztira	18.240.375	14.887.953	-18
Likidatutako eskubideak, guztira	26.051.709	16.013.301	-39
Gastuen betetzea (%)	88	83	-
Diru-sarreren betetzea (%)	126	81	-
Ordainketak (%)	94	90	-
Kobrantzak (%)	95	87	-
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	14.619.407	13.780.367	-6
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	14.470.898	13.732.608	-5
Inbertsioen gastuak (6. eta 7. kapituluak)	2.734.907	547.957	-80
Finantza-eragiketen gastuak (8.a eta 9.a)	886.061	559.629	-37
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	15.424.200	14.850.177	-4
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	7.848.086	7.605.008	-3
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	10.613.878	1.153.186	-89
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	32,12	47,48	-
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	8.683.764	1.684.977	-81
Aurrekontu-emaizta doitua	819.057	1.060.298	29
Aurrezki gordina	953.303	1.117.569	17
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	1.021.770	585.589	-43
Aurrezki garbia	-68.467	531.980	-
Zorpetze-maila (%)	6,62	3,94	-
Zorpetzearen muga (%)	6,18	7,53	-
Zorpetze-ahalmena (%)	-0,44	3,58	-
Diruzaintza-gerakina, guztira	7.180.832	7.329.853	2
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-3.371.405	-2.748.743	18
Zor bizia	1.860.156	1.322.326	-29
Diru-sarrera arruntten gaineko zor biziaren ehuneko	12,05	8,90	-
Biztanle bakoitzeko zor bizia	102	73	-
Zor bizia / Aurrezki gordina	1,95	1,18	-

Udalak aurreko ekitaldian baino ehuneko 18,38 gutxiago gastatu du eta ehuneko 38,54 gutxiagoko diru-sarrerak izan ditu. Gastuaren beherakadaren arrazoia inbertsio errealeen murrizketa izan da; diru-sarreren beherakada, berriz, kapital bidezko diru-sarreren murrizketak eragin du, izan ere 2012an ondare-besterentzeen zenbatekoa 2011n baino txikiagoa izan baita (9,5 milioi euro 2011n eta 151.000 euro 2012an).

Gastu arruntetan ehuneko 6ko urritzea izan da, eta diru-sarrera arruntak ehuneko 4 urritu dira. Gastu arruntetan izandako murrizketaren arrazoia langile-gastuen beherakada izan da, ez baita ordaindu Gabonetako aparteko paga.

Diru-sarrera arruntetan izandako murrizketa, berriz, zuzeneko zergen bilketa apur bat urriagoa izan delako gertatu da.

Aurrekontu saldo ez-finantzarioa positiboa da, 1,7 milioikoa, eta horrek adierazten du diru-sarrera ez-finantzarioak nahikoa eta gehiago direla izaera bereko gastuak finantzatzeko. 2011rekin alderatuta, saldo horrek 7 milioitan egin du behera.

Aurrekontu-emaiza doitua 1,1 milioi eurora iritsi da; aurreko urtean, berriz, 0,8 milioi eurokoa izan zen.

2012an, aurrezki gordina positiboa da, 1,1 milioi eurokoa, eta aurrezki garbia ere bai, 531.980 eurokoa; 2011n, aurrezki gordina 0,9 milioi eurokoa izan zen eta aurrezki garbia, berriz, negatiboa izan zen, -68.467 eurokoa.

Udalaren zorpetze-maila ehuneko 3,94koa da, eta ehuneko 7,53ko muga du; horregatik, hain zuzen, oraindik ere badu zorpetze berri baterako ahalmen ekonomikoa.

Diruzaintza-gerakina 7 milioi eurokoa da guztira, eta 2011tik ehuneko 2 hazi da. Hala eta guztiz ere, Udalak gastu orokorretarako diruzaintza-gerakin negatiboa (-2,7 milioi) edukitzen jarraitzen du, nahiz eta 0,6 milioitan behera egin duen 2011koarekin alderatuta. Kontu-hartzaileak oroitidazkian aipatzen duen bezala, Udalak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legean jasotako neurriak aplikatu behar ditu egoera hori orekatzeko.

Epe luzeko zorra 1,32 milioi eurora jaitsi da, eta ehuneko 29 txikiagoa da 2011koa baino; zor hori -biztanle bakoitzeko 73 eurokoa dena, guztira- entitatearen diru-sarreraren diru-sarreraren ehuneko 8,90 da. Bada, ehuneko hori gaur egun zorpetze berria hartzea mugatzen duen ehuneko 110eko lege-mugaren azpitik dago.

Honako hau izan da aurrekontuaren betetzea 2006ko ekitalditik hasi eta 2012ra arte:

Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Deskribapena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
1. Langile-gastuak	8.516.832	7.974.075	8.305.688	9.006.666	8.611.368	8.746.220	7.951.981
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	3.402.000	3.473.100	3.765.477	3.612.309	4.022.224	4.383.664	4.456.130
3. Finantza-gastuak	219.485	260.603	290.602	207.800	143.799	148.509	47.759
4. Transferentzia arruntak	674.995	994.804	1.031.494	1.408.323	1.189.605	1.341.013	1.324.497
6. Inbertsio errealak	3.530.924	2.939.884	2.155.135	4.416.599	2.963.964	2.734.907	547.957
7. Kapital-transferentziak	0	0	96.183	12.658	0	0	0
8. Finantza-aktiboak	13.300	11.800	7.000	27.700	13.361	12.800	21.799
9. Finantza-pasiboak	1.083.831	853.932	830.793	833.727	859.834	873.261	537.830
Guztira	17.441.367	16.508.198	16.482.372	19.525.782	17.804.155	18.240.374	14.887.953

Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Deskribapena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
1. Zuzeneko zergak	3.113.766	3.253.558	3.192.056	3.674.536	3.630.218	3.583.679	3.729.428
2. Zeharkako zergak	524.221	722.513	207.742	1.286.015	1.366.851	1.340.998	1.192.371
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.450.636	2.551.885	2.358.944	2.586.037	2.617.663	2.923.409	2.683.209
4. Transferentzia arruntak	6.548.718	6.854.656	7.157.318	6.897.153	7.483.316	7.269.520	6.601.976
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	245.789	302.896	276.915	289.779	306.148	306.595	643.192
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	523.943	757.950	0	9.515.210	151.580
7. Kapital-transferentziak	2.593.850	2.173.212	3.428.249	2.460.306	3.717.025	1.098.668	1.001.606
9. Finantza-pasiboak	11.428	10.964	8.196	15.694	21.837	13.630	10.039
Guztira	15.488.408	15.869.684	17.153.363	17.967.470	19.143.058	26.051.709	16.013.401

Taulako datuetatik ondorioztatzen denez, gastuen aurrekontuak hazi egin ziren 2006an eta 2009an, eta gero behera egin dute; hartara, 2012ko gastua 2006koa baino txikiagoa da. Langile-gastuen eta inbertsioen beherakadak nabarmentzen dira.

Diru-sarrerak bestelako portaera izan dute: 2011ra arte hazi egin dira, urte horretan 26 milioira iritsi dira, batez ere inbertsioen besterentzeagatik (9,5 milioi), eta 2012an behera egin dute ia 2006ko mailaraino. Azpimarratzekoak dira zuzeneko zergen hazkundera eta zeharkako zergek 2009tik aurrera izandako gehikuntza.

Laburpen gisa, ikuspegi finantzariorik, 2012an Burlatako Udalak jarraitzen du zenbait ziurgabetasun agertzen baliabide arrunt berriak sortzeko duen ahalmenari buruz, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakin negatiboa dauka, eta aurrezki garbia positibo bilakatu zaio.

Horregatik, bada, eta epe ertainean Udalaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko helburuarekin, ezinbestekoa da Udalak, dagokion planaren bitartez, hainbat neurri hartzen jarraitzea, bere gastu arruntei eusteko eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko aukera emanen diotenak.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioak betetzeari dagokionez, Nafarroako Gobernuak hiru informazio-ohar eman ditu, horietatik bi 2013an, egonkortasunari buruzko araudiaren alderdi zehatz batzuk garatze aldera.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioaren betetzea kalkulatu da toki korporazioei egokitu-tako kontabilitate nazionalaren defizita kalkulatzeko eskuliburua aplikatuz –eskuliburu hori Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzaitza Nagusiak egindakoa da–. Emaidza hurrengo taulan azaltzen da:

Kontzeptua	Zenbatekoa
I.-VII. bitarteko kapituluetakoko gastuak, guztira	14.328.324
I.-VII. bitarteko kapituluetakoko diru-sarrerak, guztira	16.003.362
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	1.675.038
Finantzatzeko ahalmena	1.675.038

Ikusten da Burlatako Udalak aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren baldintzak betetzen dituela, zeren eta haren zorra ezarritako muga baino txikiagoa baita.

Fiskalizazioaren iritzia ezertan ukitu gabe, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu egungo krisi ekonomikoko arriskuen ondorioz dagoen egoera, egoera horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta exekuzioan zorrotz jokatzeko eta funts publikoen erabilera gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrek bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Ganbera honek 2011ko ekitaldiari buruz emandako txostenari dagokionez:

a) Honako gomendio hauek ezarri dira edo ezartzeko fasean daude:

- *Plantilla organikoa Udalaren benetako langile-premietara egokitzea.*
- *Udal ondasunak (jabari publikokoak, ondarezkoak eta herri-ondasunak) erregistratzeko prozesua.*
- *Udalarentzako diru-sarrerak ekar ditzaketen jardueren (lizentziak, tasak...) gaineko kontrol-eta ikuskatze-prozedurak ezartzea.*
- *Diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorra onestea.*
- *Ripaberri Desarrollo Urbano, S.L. eta Erripagaña Desarrollo Urbano, S.L. sozietateei buruzko datuak kontu orokorrean jasotzea eranskin gisa.*
- *Faktore ekonomikoa irizpide nagusizat hartzea, eta hari pisu espezifikoa handiagoa aitortzea baldintza teknikoari erreparatuta oso konplexuak ez diren obra-adjudikazioetan.*
- *Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea, S.L. ren eta bere mendeko bi sozietateen urteko kontuak egitea hurrengo ekitaldiko martxoaren 31 baino lehen.*

b) Indarrean jarraitzen dute txostenaren ataletan azaltzen diren gomendioek.

V. UDALAREN 2012ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren, 2012ko kontabilitatearen egoera-orri bateratu garrantzitsuenak azaltzen ditugu.

V.1. 2012ko AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA**Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera**

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordaintzeke dagoena	Ordaintzeke dagoena (%)
1. Langile-gastuak	8.482.095	193.033	8.675.128	7.951.981	91,66	7.739.182	212.799	2,67
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	4.920.683	448.717	5.369.400	4.456.130	82,99	3.620.567	835.563	18,75
3. Finantza-gastuak	155.505	-88.000	67.505	47.759	70,74	47.759	-	-
4. Transferentzia arruntak	1.363.151	63.518	1.426.669	1.324.497	92,83	948.731	375.766	28,37
6. Inbertsio errealak	-	2.005.967	2.005.967	547.957	27,31	451.557	96.400	17,59
8. Finantza-aktiboak	-	30.000	30.000	21.799	72,66	21.799	-	-
9. Finantza-pasiboak	873.372	-	873.372	537.830	61,58	506.076	31.754	5,90
Guztira	15.794.806	2.653.235	18.448.041	14.887.953	80,70	13.335.671	1.552.282	10,42

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantszak	Kobratzeke dagoena	Kobratzeke dagoena (%)
1. Zuzeneko zergak	3.737.400	-	3.737.400	3.729.428	99,78	3.388.980	340.448	9,12
2. Zeharkako zergak	1.400.000	-	1.400.000	1.192.371	85,16	512.030	680.341	57,05
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.864.128	-	2.864.128	2.683.209	93,68	2.466.433	216.776	8,07
4. Transferentzia arruntak	6.623.731	394.596	7.018.327	6.601.976	94,06	6.124.792	477.184	7,22
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	296.176	212.531	508.707	643.192	126,43	332.502	310.690	48,30
6. Inbertsio errealen besterentzea	1.192.798	964.000	2.156.798	151.580	7,02	151.580	-	-
7. Kapital-transferentziak	600.000	392.651	992.651	1.001.606	100,90	1.001.606	-	-
8. Finantza-aktiboak	40.000	689.456	729.456	10.039	1,37	10.039	-	-
Guztira	16.754.233	2.653.234	19.407.467	16.013.401	82,51	13.987.962	2.025.439	12,64

V.2. 2012KO AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2011	2012
+ Aitortutako eskubideak	26.051.709	16.013.401
- Aitortutako betebeharrak	18.240.374	14.887.953
= Aurrekontu-emaiza	7.811.335	1.125.448
Doitzeak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	-8.573.237	-713.410
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	929.231	76.901
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzatutako gastuak	651.729	571.359
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	-	-
= Aurrekontu-emaiza doituak	819.058	1.060.298

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2012ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2011	2012
(+) Kobratzeke dauden eskubideak	1.648.161	5.729.413
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	1.264.921	2.025.440
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	989.274	1.517.891
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	204.533	3.348.432
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	-810.567	-1.162.350
(-) Ordaintzeke dauden betebeharrak	4.932.509	2.047.627
(+) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	1.172.658	1.552.282
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	50.082	47.103
(+) Diru-sarreraren itzulketa	-	-
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	-6.219	-1.300
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	3.715.988	449.542
(+) Diruzaintzako funts likidoak	9.813.887	3.565.859
(+) Finantzaketa-desbideratze metatu negatiboak	651.294	82.209
= Diruzaintza-gerakina, guztira	7.180.833	7.329.854
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	-	67.235
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	10.552.237	10.011.362
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-3.371.404	-2.748.743

V.4. 2012ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZE BATERATUA

(Udala gehi erakunde autonomoak gehi udal sozietatea)

Aktiboa

Deskribapena	2012	2011
A Ibilgetua	102.718.428	102.165.701
1 Ibilgetu materiala	82.216.828	77.382.046
2 Ibilgetu ez-materiala	225.884	220.439
3 Erabilera orokorrerako azpiegitura eta ondasunak	17.765.352	17.551.454
4 Bidean diren obrak	-	4.122.517
5 Herri-ondasunak	26.794	26.794
6 Finantza-ibilgetua	2.483.569	2.444.709
Zerga geroratuengatiko aktiboak	-	417.742
C Zirkulatzaila	15.023.514	14.066.782
9 Zordunak	8.022.025	3.308.958
10 Finantza-kontuak	7.001.489	10.757.824
Aktiboa, guztira	117.741.942	116.232.483

Pasiboa

Deskribapena	2012	2011
A Funts berekiak	114.295.181	109.180.798
1 Ondarea eta erreserbak	84.893.419	75.838.849
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (mozkina)	4.162.248	9.852.153
3 Kapitaleko diru-laguntzak	25.239.514	24.089.796
Konturako dibidendua	-	-600.000
C Epe luzeko hartzekodunak	1.322.326	1.860.156
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailuak	1.322.326	1.860.156
D Epe laburrerako hartzekodunak	2.124.435	5.191.529
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	2.124.435	5.191.529
Pasiboa, guztira	117.741.942	116.232.483

V.5. GALERA ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2012an

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2012	2011	Deskribapena	2012	2011
3 Hasierako izakinak	-	-	3 Bukaerako erosketak	-	-
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-
60 Erosketak	-	-	70 Salmentak	2.517.912	2.331.863
61 Langile-gastuak	7.957.744	8.755.037	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	735.908	780.057
62 Finantza-gastuak	47.759	148.509	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	3.692.863	3.684.210
63 Tributuak	7.429	11.680	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	856.815	843.848
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	4.442.938	4.363.168			
65 Gizarte prestazioak	-	-	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-	76 Transferentzia arruntak	7.874.455	8.571.998
67 Transferentzia arruntak	2.596.975	2.643.491	77 Kapitalaren gaineko zergak	372.121	396.619
68 Kapital-transferentziak	-	32.519	78 Bestelako diru-sarrerak	102.665	123.967
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidurak	-	-	79 Beren helbururako aplikatutako hornidurak		
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	1.099.894	778.158	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)		
Guztira	16.152.739	16.732.562	Guztira	16.152.739	16.732.562

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2012	2011	Deskribapena	2012	2011
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)			80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	1.099.894	778.158
82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo zorduna)	-	-	82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo hartzekoduna)	151.580	7.908.562
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)			83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)		
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	55.560	55.679	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)		
89 Mozkin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	1.195.914	8.631.041	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)		
Guztira	1.251.474	8.686.720	Guztira	1.251.474	8.686.720

- Udalaren eta patronatuen emaitza..... 1.195.914 euro
 - Udalaren Hirigintza Sozietatearen emaitza..... 2.966.334 euro
- 2012ko emaitza bateratua, guztira..... 4.162.248 euro

VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ENTEEI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko iruzkin eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- Alkatetzaren 2011ko abenduaren 30eko Ebazpenaren bidez 2012rako luzatu zen aurreko ekitaldiko aurrekontua, 2011ko irailaren 8ko osoko bilkuran onetsi zena.

- Burlatako Udalaren kontu orokorra onetsi gabe dago txosten hau idazteko garaian, udalbatzako kideek ez diotelako babes nahikorik eman.

- Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta gaurkotzeke dago. 2009an zehar, Udalaren jabetzakoak ziren lur-eremuak erregistratu ziren, katastroan ageri diren datuen arabera; Osoko Bilkurak, 2010eko maiatzaren 27an, eguneratze hori onetsi zuen, 2009ko abenduaren 31tik aurrerako eraginekin –33,5 milioi euro egiten du–; orduetik ez da horri buruzko inongo mugimendurik izan.

- Erakunde autonomoak beren estatutuaz daude araututa; estatutu horiek, ordea, eguneratzeko premia handia dute. Eguneratze horretan erakunde horien benetako autonomia-maila eta Udalak beren jardueraren inguruan dituen kontrol-mekanismoak zehaztu behar dira, besteak beste.

- Ez da aurkitu nabarmentzeko moduko zenbatekoa duen 2012ko fakturarik, 2013ko aurrekontuari egotzi zaionik.

- Egindako azterketatik ondorioztatzen da Udalak modu arrazoizkoan betetzen dituela hornitzaileei ordaintzeko epeak, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legean eta Merkataritza-eragiketetan Berankortasuna Eragozteko Neurriak ezarri zituen 15/2010 Legean ezarritakoak. Egiaztatu da, gainera, Udalak 2012an ez duela inolako zenbatekorik ordaindu arrazoi horrengatik berandutza-interesengatik.

- Udalak 1,32 milioiko epe luzeko zorra dauka 2012ko abenduaren 31n. Zor horren amortizazio-egutegia honako hau da 2012ko abenduaren 31n:

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2013	370.807	28,04	28,04
2014	355.525	26,88	54,92
2015	286.090	21,63	76,55
2016-2020	309.900	23,45	100
Guztira	1.322.322	100	

Gure aholkuak:

- *Urteko aurrekontua indarrean dauden legeetan ezarritako epeetan onestea, Udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzariarako tresna gisa erabili ahal izan dadin.*

- *Kontu orokorra hurrengo ekitaldiko irailaren 1a baino lehen onestea.*

- *Udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentario balioztatua gaurkotu eta onestea.*

- *Udal-ondasunak (jabari publikoak, ondarezkoak eta herri-ondasunak) eskritoretan jaso eta erregistratzeko prozesua burutzea.*

- *Udalaren inbentarioa etengabe gaurkotzeko eta kontabilitatearekin lotua egoteko prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

- *Erakunde autonomoen estatutuak osatu eta gaurkotzea eta erakunde horien autonomia-maila eta Udalaren kontrola islatzea.*

VI.2. LANGILEAK

Langileen gastua 8,7 milioi eurokoa da; hau da, 2012an sortutako gastu guztien ehuneko 48 eta gastu arrunten ehuneko 60.

2011ko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu hau ehuneko 9,09 gutxitu da. Arrazoia izan da, neurri handian, abenduako aparteko paga kendu dela, Egonkortasuna bermatzeko neurriei buruzko 20/2012 Lege Dekretua aplikatuz. Hona hemen aurreko ekitaldiarekiko konparazioa:

	Aitortutako betebeharrak		Ehunekoa Aldea
	2011	2012	
Goi-karguak	277.913	282.427	1,62
Funtzionarioak	2.482.971	2.344.971	-5,56
Lan-kontratudun finkoak	606.352	478.723	-21,05
Aldi baterako lan-kontratudunak	2.620.294	2.184.253	-16,65
Gizarte zamak	2.758.690	2.661.607	-3,52
1. kapitulua, guztira	8.746.220	7.951.981	-9,09

Luzatutako aurrekontuarekin batera, indarrean jarraitzen du Osoko Bilkurak 2011n onetsi zuen plantilla organikoak. Bertan 163 lanpostu daude jasota –horietatik 54 lanpostu bete gabe daude–, ondoko taula hauetan erakusten den bezala banatuta:

Kontzeptua	Lanpostuak
Funtzionarioak jardunean	88
Lan-kontratudun finkoak jardunean	21
Atal honetan, guztira	109
Lanpostu hutsak	54
Guztira	163

54 lanpostu hutsetatik 32tan bitarteko langileak ari dira.

2012ko abenduaren 31n, Udalean eta haren erakunde autonomoetan 184 pertsonak egiten zuten lan:

Langileak	Udala	Kirol Patronatua	Kultur Patronatua	Guztira
Aldi baterako langileak - Izendapen askea	2	-	-	2
Funtzionarioak	70	14	4	88
Lan-kontratudun finkoak	18	2	1	21
Aldi baterako kontratadunak	55	17	1	73
Guztira	145	33	6	184

Nabarmentzekoa da Udalaren plantillan ugari direla aldi baterako langileak.

2011ko ekitaldian baino 63 langile gutxiago izatea lantegi-eskolako enplegu programako ikasleen kontratuen amaieraren ondorio da.

Udaleko langileak arlo hauetara atxikirik daude:

Arloak	Kopurua
Administrazioa	25
Udaltzaingoa	36
Gizarte zerbitzuak	21
Gizarte sustapena	7
Obrak eta zerbitzuak	49
Enplegu-sustapena	7
Kirol Patronatua	33
Kultur Patronatua	6
Guztira	184

Gastu horien lagin bat aztertuta ondorioztatzen da, oro har, ordaindutako ordainsariak egingdako lanerako ezarritakoak direla, egindako atxikipenak zuzenak direla eta langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela. 2012ko ekitaldian soldata-igoerarik ez dela izan ikusi da orobat.

2012an amaitu ziren aldi baterako lanpostuak betetzeko deialdiak aztertuta, ondorioztat atera dugu modu egokian bete dela indarrean dagoen araudia.

Burlatako Udaleko eta patronatuetako langileek daukaten hitzarmena 2007koa da, eta ez da berritu. Gainera, Ganbera honen aurreko txosten batzuetan dagoeneko esaten den bezala, Burlatako Udalaren langile funtzionarioentzako eta administrazio-kontratupeko langileentzako Akordioaren 7. artikuluan (langileen promozioa arautzeari buruzkoan) deialdi murriztuei buruzko zenbait alderdi jasotzen dira, ez zaizkionak egokitzen 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko 15. artikuluan ezarritakoari.

2012ko ekitaldian, udalbatzako kideek, guztira, 166.331 euro kobratu dituzte: alkatetzaren soldata, eta udalbatzako kideek osoko bilkuretara, Gobernu Batzordera, batzordeen bileretara eta abarrekoetara joateagatik kobratzen dituzten dietak. Aurreko ekitaldian, berriz, kontzeptu horren-gatik gastua 143.253 eurokoa izan zen. Jasotako dietak direla-eta PFEZa ordaindu beharra dago.

Ordainsari horiei buruzko araudia 2011ko irailekoa da, eta hau xedatzen du:

- Alkatearentzat, urtean 38.457,58 euroko ordainsaria eta gizarte segurantzako kotizazioa; enpresak ordaindu beharreko kuotaren ordainketa Udalaren kargura izango da.

- Udalbatzako gainerako kideentzat, udal organoen bilkuretan parte hartzeagatik diru-lesleipenen araubidea honela izanen da:

a) Osoko bilkurara joatea: 250 euro.

b) Informazio batzordeak: 150 euro.

Bilera horietan parte hartzeagatik zinegotzi bakoitzak urtean gehienez 6.100 euro jasoko ditu guztira.

c) Eledunen Batzordea: 60 euro.

Bilera horietan parte hartzeagatik zinegotzi bakoitzak urtean gehienez 2.000 euro jasoko ditu guztira.

d) Gobernu Batzordea: 50 euro.

Bilera horietan parte hartzeagatik zinegotzi bakoitzak urtean gehienez 2.000 euro jasoko ditu guztira.

Diru kopuru horiek hileko 12 kuota berdinetan ordainduko dira, urteko behin betiko likidazioaren kontura.

Araudi horren arabera, zinegotziek 2012an guztira jasotako ordaina 130.620 eurokoa da, eta ez da aurkitu Udalaren barne araudiaren ez-betetzerik.

Gure aholkuak:

- *Plantilla organikoa premia errealen arabera egokitzeko azterketa-prozesua osatzea.*
- *Udaleko langileen hitzarmeneko 7. artikulua 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko 15. atalean agintzen denera egokitzea, lanpostuak betetzeko deialdietan izaera murriztuaren aplikazioa mugatzeari dagokionez.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan eginiko gastuek 4,4 milioi euro egin dute 2012ko ekitaldian; guztira, ekitaldiko gastuen ehuneko 30 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 32 egiten dute. 2011. urtearen aldean, ehuneko 2 egin dute gora. Hona gastu horien xehekako azalpena:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Errentamenduak	294.681
Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa	706.019
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	3.449.666
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	5.763
Guztira	4.456.129

2011tik 2012ra izandako gehikuntza horren arrazoi nagusia Erripagañako futbol zelaia edo Gaztelekua bezalako lokalak alokatzeko gastuen gehikuntza da.

Kontratazio-espediente hau berrikusi da (zenbatekoak BEZik gabe)

Deskribapena	Kontratu mota	Adjudikazio prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Adjudikazioaren zenbatekoa	2012an gauzatua
2012ko aseguru polizak	Laguntza kontratua	Irekia, Europar Batasuneko atalaren gainetik	139.299	5	100.302	85.508

Berrikuspen horretatik eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz eginiko azterketatik ondorioztatu denez, gastu horiek behar diren fakturekin justifikatuta daude, zuzen kontabilizatu dira eta aplikatzekoa den araudia zentzuz errespetatu da.

Kultur Patronatuaren kultur jardueretarako laguntza teknikoko zerbitzu batzuek, 2012an, bere zenbatekoaren arabera kontratazio-prozedura egokia izapidetzea eskatuko lukeen gastu bolumena izan dute.

Gure aholkuak:

- *Urteko gastuen bolumena aldez aurretik balioets daitekeen kasuetan, dagozkion kontratazio-espedienteak izapidetzea.*

VI.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Izaera hau duten gastuek 1,3 milioi euro egiten dute; hau da, 2012an sortutako gastu guztien ehuneko 9 eta gastu arrunten ehuneko 10.

Ondoren gastu horiek aurreko ekitaldiko gastuekin konparatuko dira:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%),
	2011	2012	2012/2011
Toki entitateei	295.943	269.513	-8,94
Mankomunitateei	320.016	337.698	5,52
Familiei	301.624	334.854	11,01
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	423.430	382.432	-9,69
4. Transferentzia arruntak	1.341.013	1.324.497	-1,24

2011ko ekitaldiaren aldean, gastu horiek aurreko ekitaldian egindakoen antzekoak dira.

Kapitulu hau aztertzeko egin den lanean, egiaztatu dugu gastu hori justifikatuta dagoela eta zuzen kontabilizatu dela, arau indardunak egoki betez.

VI.5. INBERTSIOAK

2012. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (2 milioi euro) ehuneko 27 bete da, eta 548 mila eurora iritsi da; hau da, ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 4ra.

2011rekin alderatuta, inbertsioek ehuneko 80 –hau da, 2,18 milioi euro– egin dute behera.

Honakoak dira 2012an egindako inbertsio garrantzitsuenak:

Inbertsioa	Zenbatekoa
Erdi Aroko zubia zaharberritzea	132.034
Lantegi-eskolako inbertsioak	81.864
Hilerria zaharberritzea	228.709
Bulegoko tresnak eta altzariak	64.173

2012an adjudikatutako honako espediente hauek aztertu ditugu (zenbatekoak BEZik gabe):

Deskribapena	Kontratu mota	Adjudikazio prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Adjudikazioaren zenbatekoa	2012an gauzatua
Erdi Aroko zubia zaharberritzea	Obra kontratua	Negoziatua, Europar publikizaterik egin gabe	108.439	3	103.018	111.893*
Gaztelekuko altzariak	Hornidura kontratua	Negoziatua, Europar publikizaterik egin gabe	71.108	11	49.776	53.035

* Ordainsarietarako 3.583 euro barne

Egindako azterketaren arabera, egoki errespetatu da aplikatzeko den araudia.

Gure aholkuak:

- *Hautapen prozesu guztiak homogeneizatzeko aldera, kontratazioetarako baldintza-orri orokorrak prestatzea, non kontratu-mota bakoitzean aplikatzekoak diren baldintzak eta oinarrizko irizpideak ezarriko diren.*

- *Bere hirigintza-sozietateari egiten dizkion enkarguen araubide juridiko eta ekonomikoa arautzea.*

VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2012ko ekitaldian aitortutako eskubideak 16 milioikoak izan dira; ehuneko 88,72 eragiketa arruntengatiko diru-sarrerari dagozkien eta ehuneko 11,28, berriz, kapital-eragiketei.

Diru-sarrera arrunten artean tributuen bidezko diru-sarrerak (7,6 milioi eurokoak) eta transferentzia arruntak (6,6 milioi eurokoak) nabarmentzen dira. Kapital-eragiketetan, Administrazio Orokorren transferentziak dira azpimarratzekoak (milioi bat euro).

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 82,51koa izan da.

2011. urtearen aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko 38,53 murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%), 2012/2011
	2011	2012	
1. Zuzeneko zergak	3.583.679	3.729.428	4,07
2. Zeharkako zergak	1.340.998	1.192.371	-11,08
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.923.409	2.683.209	-8,21
4. Transferentzia arruntak	7.269.520	6.601.976	-9,18
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	306.595	643.192	109,78
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	15.424.201	14.850.176	-3,72
6. Inbertsioen besterentzea	9.515.210	151.580	-984,06
7. Kapital-transferentziak	1.098.668	1.001.606	-8,83
8. Finantza-aktiboak	13.630	10.039	-26,34
Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6.etik 9.era)	10.627.508	1.163.225	-89,05
Diru-sarrerak, guztira	26.051.709	16.013.401	-38,53

Udalerrian 2012an obra gutxiago egin dira 2011n baino, eta horrexek eragin du zeharkako zergen urritzea. Transferentzia arruntek behera egin dute lantegi-eskolari ekarpen txikiagoa egin zaiolako, 2012an amaitu baitu bere jarduerak.

Inbertsioen besterentzeen kapituluak beherakada izan du 2011n etxebizitzak eraikitzeko lurzati batzuk saldu zirelako Erripagaña aldean.

Taula honetan erakusten da nolako eboluzioa izan duten aitortutako eskubideek udal zerga bakoitzean:

Zergak	Aitortutako eskubideak		Aldea (%), 2012/2011
	2011	2012	
Lurraren kontribuzioa	2.048.114	2.171.399	6,01
Ibilgailuak	843.848	856.815	1,53
Lurren balio-gehikuntza	396.619	372.121	-6,17
JEZa	295.098	329.093	11,52
EIOZa (eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga)	1.340.998	1.192.371	-11,08
Guztira	4.924.677	4.921.799	-0,05

Lortutako diru-sarrerak, guztira, 2011koen parekoak dira.

Udalak aplikatzen dituen tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak agintzen dituen tasa ertain-altuen artean daude, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,276	0,10 - 0,50
Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2 eta 3,8 bitarte	2 eta 3,8 bitarte
Karga-tasa	10	8 eta 20 bitarte
Eraikuntza, instalazio eta obrak	5	2 - 5

Tasa horiek izoztu egin dira 2011. urtearekin alderatuta.

Diru-sarreraren aurrekontu bateratuko kontusailen lagin baten gainean eginiko azterketatik ondorioztatu dugu, oro har, egoki izapidetu eta kontabilizatu direla, nahiz eta, aurreko txostenetan adierazten genuen bezala, soilik egiazki kobratutako isunen aurrekontuari egozten zaizkion.

Gure aholkuak:

- *Diru-sarreraren aurrekontua, egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta, egiaz dauden aukeren arabera egitea.*
- *Isunak kudeatzeko prozedura osatzea, kobratzeko dauden isunen zenbatekoa ezagutu ahal izateko.*

VI.7. HIRIGINTZA

Burlatako Udalak bere baliabideen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak, Hirigintza Alorra ize-neko organo baten bitartez; organo horretan diharduten pertsonak hauek dira: arkitekto bat, bi aparejadore, obren buru bat, ofizial administrari bat eta zerbitzu anitzetako 20 langile.

Ez dago kanpoko ahokularirik alor honetarako.

Hirigintza kudeatzeko finkatutako prozedura batzuk badaude, eta egiaztatu egiten da arau indardunak egoki betetzen direla.

Burlatako Udalaren Lurraldearen Antolamenduari buruzko Plana 1991n onetsi zen. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– indarrean zeuden planeamenduak homologatzeko eta egokitzeko.

2005eko ekainean, Udaleko Osoko Bilkurak Lurraldearen Erabilerarako Estrategia eta Eredua (LEEE) onetsi zuen, eta Nafarroako Gobernuari igorri zion. Oroitidazkian azaltzen denez, 2012ko martxoaren 30ean Lurralde Antolamendurako Batzordeak LEEE hori onetsi zuen. Egun berean sinatu zen Udal Planaren berrikuspenerako aurretiazko hitzarmena.

Bestalde, egiaztatu dugu Udalaren barne-kudeaketarako eta -kontrolerako organoek ez dutela hirigintza-jardueraren gaineko ez jarraipenik ez ikuskaritzarik egiten, ekipamendu-obrei eta etxebizitzaren sustapenari eta eraikuntzari dagokienez.

Azkenik, ikusi dugu udal ondarea besterentzetik lortutako baliabideak indarra duen araudian ezarritako helburuetarako erabili direla.

Gure aholkuak:

- *Hirigintza-planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenen arabera egokitzeko prozesua burutzea.*
- *Udalak diseinatzea eta aplikatzea Udalaren kapitaleko sozietateei, jarduera orotan, ezarri beharreko finantza- eta eraginkortasun-kontrolerako prozedura juridiko eta teknikoak.*

VI.8. BURLATAKO UDALAREN HIRIGINTZA SOZIETATEA, S.L.

2006ko otsailean, Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea SL sortu zen, 1,8 milioi euroko kapital sozialarekin eta 664.557 euroko jaulkipen-primarekin. Burlatako Udalak berak jarri zituen diru kopuru horiek osorik, diru horretan baloratutako lursail baten lagapenaren bitartez.

Sozietate horren xedea da Udalaren ekintzak eraginkorrek izatea hiriaren birgaitzea bultzatzeko, etxebizitzak eta beste eraikin batzuk sustatzeko, lurzorua urbanizatzeko, egoera txarrean dauden hiri-eremuak zaharberritzeko, eta, orobat, orube eraikigarrien eta horietan eraikitzen diren eraikinen salmentako eta errentamenduko prezioak murriztea.

Burlatako Udalak bi lurzati-multzo laga zizkion dohainik Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateari, Erripagañako Udalez Gaindiko Plan Sektorialaren birzatatze-proiektuaren ondorioz, haiek hirigintzaren aldetik kudea zitzan eta etxebizitzaren sustapena egin zezan:

Etxebizitza-sustapenerako helburuak betetzeko, Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateak bi deialdi egin ditu lagapen horietako bakoitzerako, beste bazkide pribatu batekiko bitariko sozietateak eratzeko asmoz, etxebizitza babestuak sustatu eta eraikitzeko; horrek lurzatiak salmenta bidez besterentzea eskatzen zuen, gainera, inplizituki. Sozietate misto horiek dira "Ripaberri Desarrollo Urbano SL" –2008ko ekainean eratua– eta "Erripagaña Desarrollo Urbano SL" –2010eko martxoan eratua–.

Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateak bi sozietateetan duen partaidetza ehuneko 51koa da; bazkide pribatuak –bi sozietateetan bera da, Nasipa, SL–, berriz, gainontzeko ehuneko 49 dauka. Honakoak dira deialdi horien ondoriozko sozietateak: Ripaberri Desarrollo Urbano, S.L. eta Erripagaña Desarrollo Urbano, S.L.

Gainera, Udalak munta handiko inbertsioak egitea enkargatu dio Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateari, nahiz eta azken horrek langile bakarra duen, eta, gainera, proiektu horien kontrola eta gainbegiratzea ere haren esku uzten du, bai eta haien etorkizuneko balizko ustiatze ekonomikoa ere. Hala eta guztiz ere, 2012an ez da beste enkargurik egin.

Eragiketa multzo honen inguruan, Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatearen egoerari buruzko balantzeak 8,9 milioi euroko saldoa erregistratu zuen 2012ko abenduaren 31n "Higiezinetako inbertsioen" atalean –Udalarentzat egindako eta jada bukatutako ekipamenduengatik– eta "Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak" atalean Udaletxeak doan emandako lursailen balioa jasoz joan da –8,05 milioi euro–. Horrek geroago besterendu egin zituen bitariko sozietateak.

Hala eta guztiz ere, 2012ko apirilean azalera-eskubidea emateko kontratuak formalizatzea onetsi da, Udalak sozietateari lagatutako lursailengatik, bai eta sozietateak Udalari lagatutako eraikinen errentamendu-kontratuak ere. 2012an egindako kontratu hauekin, konponbide bat ematen zaio zehaztasunik gabeko egoera juridiko bati, bai enkarguei berei dagokienez bai Udalaren lurzoruan eraikitako ekipamendu horien ustiapenari dagokienez ere.

Ekipamenduok honako hauek dira:

- Haur eskola.
- Gazteentzako zentroa.
- Aldageletako eraikina.
- Obretarako biltegi-zentroa.

Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea, SLren Urteko kontuak, 2012. urteari dagozkionak, kanpoko profesional batek ikuskatu zituen, eta bere iritzia eman zuen, salbuespen bakar honekin:

Haren ondare garbia 15,9 milioi eurokoa zen 2012an, eta ez du epe luzeko zorrik. Maniobra-funtsa positiboa du, 4,5 milioi eurokoa.

2012an 578.148 euroko gastuak izan ditu, guztira; horietatik, 44.421 euro langile-gastuei dagozkie, 267.843 euro amortizazio-gastuei eta 220.190 euro sozietateen gaineko zergari. 2012ko diru-sarrerak 3,5 milioi eurokoak izan dira; funtsean, Erripagaña Desarrollo Urbano, SLk eman-

dako dibidendutik heldu diren diru-sarrerara finantzarioei dagozkie (3.007 mila euro), eta neurri txikiagoan, negozio-zifraren zenbateko garbiari (438 mila euro).

2012ko emaitzak 3 milioi euroko irabazia izan du. Horietatik, 2,8 milioi euro borondatezko erreserbetara bideratuko dira, eta gainerakoa Udalarentzako dibidenduetarako izanen da.

VI.9. RIPABERRI DESARROLLO URBANO, SL:

2008ko ekainaren 17an eratu zen Ripaberri Desarrollo Urbano SL sozietatea. Haren kapital soziala 3.100 eurokoa zen, eta kapital sozial horretatik ehuneko 51 Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatearena zen eta ehuneko 49, berriz, bazkide pribatu batena; bazkide horrek sustapenaren zenbatekoaren ehuneko 4 jasoko zuen kudeaketa-gastuen kontzeptuan (0,8 milioi euro izan ziren guztira).

Sozietate-xedea, besteak beste, edozein izaeratako orubeak, lursailak eta finkak erosi, saldu, administratu eta urbanizatzea da, eta batez ere, Burlatako udalerrian etxebizitzak sustatu eta eraikitzea, Erripagañako udalez gaindiko plan sektorialaren esparruan.

Ripaberri Desarrollo Urbano, SLk babes ofizialeko 48 etxebizitza eta prezio tasatuko 158 etxebizitza eraiki ditu. Guztiak, 13 izan ezik, 2011n egin dira, eta 2,12 milioi euroko emaitza azaleratu dute. Nafarroako kontratazio atariak, 2008ko azaroan, haien lizitazio-iragarkia argitaratu zuen, 20 milioi euroko aurrekontuarekin (BEZa kenduta); Ripaberriren bazkide pribatua (Nasipa SL) kontratuaren adjudikazio-hartzaile suertatu zen 2009an, 19,98 milioi euroko zenbatekoarekin (BEZa kenduta). Aurkeztutako eskaintza bakarra izan zen.

2012an Nasipak 44.690 euroko obra-ziurtagiriak fakturatu ditu. Txosten hau egiteko garaian hartzekodunen borondatezko konkurtsoan dago.

Ehuneko lauko kudeaketa-gastua, 0,8 milioi euro inguruko diru-sarrerara izanen da guztira bazkide pribatuarentzat (behin eraikuntza bukatutakoan).

Ripaberri sozietatearen 2012ko urteko kontuak, kanpoko kontu-ikuskatzaileek egindako ikuskaritza finantzarioko txosten batean aztertu ziren, eta iritzia aldekoa izan zen.

210.304 euroko ondare garbia dauka. Ekitaldiko emaitza 207 mila eurokoa da, eta babes ofizialeko etxebizitzak eta prezio tasatuko etxebizitzak salmentatik etorri da. Epe luzeko zorra 1,3 milioi eurokoa da eta maniobra-funtsa, berriz, 1,5 milioi eurokoa.

2012an 1,3 milioi euroko gastuak izan ditu, guztira; horietatik, milioi bat euro 2012an saldu-tako etxebizitzak izakinetan gertatutako bajari dagozkie. Sozietate honek ez du langilerik.

Haren diru-sarrerak 1,52 milioi eurokoak dira. Horietatik, 1,50 milioi euro etxebizitzak salmentatik etorri dira.

Ekitaldiko emaitzak 0,2 milioi eurokoak dira, eta borondatezko erreserbetarako erabili dira.

Txosten hau egiteko garaian, sustapen honen behin betiko emaitzak 5,9 milioi inguruko irabazkiak dira: horrek esan nahi du sustapen gastuen gaineko ehuneko 16,93ko mozkinak izan direla.

Oroitidazkian aipatzen denez, aurreikusita dago 2012an sozietatea desegitea. Hala ere, txosten hau egiteko garaian oraindik desegin gabe dago.

VI.10. ERRIPAGAÑA DESARROLLO URBANO, S.L.

2010eko ekainaren 18an, Erripagaña Desarrollo Urbano SL sozietatea eratu zen. Haren kapital soziala 3.100 eurokoa zen, eta kapital sozial horretatik ehuneko 51 Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatearena zen eta ehuneko 49, berriz, bazkide pribatu batena (Nasipa, SL); bazkide pribatu honek ehuneko 0,25 jasoko zuen kudeaketa-gastuen kontzeptu gisa.

Sozietatearen xedea, besteak beste, edozein izaeratako orubeak, lursailak eta finkak erosi, saldu, administratu eta urbanizatzea da, eta batez ere, Burlatako udalerrian etxebizitzak sustatu eta eraikitzea, Erripagañako udalez gaindiko plan sektorialaren esparruan.

Erripagaña Desarrollo Urbano SL hasia da babes ofizialeko 267 etxebizitza eraikitzen. Horretarako, Nafarroako kontratazio atariak, 2010eko uztailaren 8an, haiek eraikitzeke obren lizitazio-iragarkia argitaratu zuen, 23,86 milioi euroko aurrekontuarekin (BEZa kenduta); prozesu horretara hiru eskaintza aurkeztu ziren, eta sozietatearen bazkide pribatua gertatu zen adjudikazio-hartzaile. Adjudikazioaren zenbatekoa 19,08 milioi eurokoa da, ehuneko 37ko bajarekin.

Espedientean kanpoko bi abokatuk egindako txosten juridiko bat agertzen zen, non adierazten baitzen bazkide pribatuak bere eskaintza aurkez zezakeela kontratazio-prozesura horretarako, ez baitzen ikusten "baztertzeko inolako kausa automatikorik gertatzen denik".

Baina, txosten horrexek gehitzen zuen, kontratazio publikoaren printzipioak bermatzeko, sozietateko Administrazio Kontseiluak hautaketa-prozesuan eta aipatutako obra burutzekoan eragina zuen edozein erabakietan parte hartzeari uko egin behar ziola bazkide pribatuak.

2012an Nasipa SLk 12,7 milioi euroko obra-ziurtagiriak fakturatu ditu.

Urte horretan 267 etxebizitza adjudikatu dira, haiek behin betiko saltzeko zain.

Erripagaña sozietatearen 2012ko urteko kontuek badute kanpoko kontu-ikuskariak egindako finantzen kontu-ikuskaritzaren txosten bat, eta haien iritzia aldekoa izan da. Hala ere, kanpoko kontu-ikuskariak azpimarratu egin du sozietateak 2012ko ekitaldian zehar bazkideei dirua eman diela, 3.000.000 euro Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateari eta 3.460.652 euro Nasipa, S.L.ri. Ordainketa horiek etorkizunean emanen diren dibidenduekin konpentsatuko dira.

6.736 euroko ondare garbia du, eta ekitaldiko emaitza 6.829.978 eurokoa izan du. Epe luzerako 6,4 milioi euroko zorra du eta maniobra-funts positiboa dauka, 13,05 milioi eurokoa.

2012an 31,2 milioi euroko gastuak izan ditu, guztira; horietatik, 12,7 milioi euro bazkide pribatuak fakturatutako obra-ziurtagiriei dagozkie, eta 14,3 milioi euro, berriz, 2012an saldutako etxebizitzaren izakinetan gertatutako bajari. Sozietate honek ez du langilerik.

Haren 2012ko diru-sarrerak 38 milioi eurokoak izan dira. Horietatik, 37,9 milioi euro etxebizitzaren salmentari dagozkie.

Txosten hau egiteko garaian, sustapen honen behin-behineko emaitzak 12,6 milioi inguruko mozkinak dira: horrek esan nahi du sustapen gastuen gaineko ehuneko 37,59ko mozkinak izan direla.

Oroitidazkian aipatzen denez, aurreikusita dago 2013-2014an sozietate hori desegitea.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2013ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio-txostena, Atarrabiako Udalari buruzkoa, 2012ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (29. or.).

II. Helburua (31. or.).

III. Norainokoa (31. or.).

IV. 2012ko kontu orokorrari buruzko iritzia (32. or.).

IV.1. Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorra. (32. or.).

IV.2. Legezketasuna (32. or.).

IV.3. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2012ko abenduaren 31n (32. or.).

IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (36. or.).

V. Udalaren 2012ko kontu orokorraren laburpena (37. or.).

V.1. 2012ko aurrekontu-betetzearen egoera-orria: (37. or.).

V.2. 2012ko aurrekontu-emaizta (38. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2012ko abenduaren 31n (38. or.).

V.4. 2012ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (39. or.).

V.5. 2012ko galeren eta irabazien kontua (40. or.).

VI. Udalari eta haren menpeko enteei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (41. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (41. or.).

VI.2. Langileak (42. or.).

VI.3. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (43. or.).

VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (44. or.).

VI.5. Inbertsioak (45. or.).

VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (45. or.).

VI.7. Hirigintza (47. or.).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bere jarduera-programari jarraituz, Atarrabiako Udalaren 2012ko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Atarrabiako udalerrriak 1,1 km²-ko azalera du, eta 10.496 biztanle ditu 2012ko urtarrilaren 1ean.

2012ko ekitaldia ixtean, Udalaren funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

Entitatea	2012an aitortutako betebeharrak	2012an aitortutako eskubideak	Langileak, 2012-12-31n
Udala	7.744.880	8.763.565	103

Udalak ez du ez erakunde autonomorik ez toki-enpresa publikorik.

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraiokoak eta ibai-parkearen kudeaketari dagozkionak. Mankomunitate horretako kide izatearen ondoriozko gastuak 222.334 eurokoak izan dira guztira 2012an.

Horrez gain, Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Eskualdeko Bulegoan eta ANIMSA Nafarroako Udal Informatikako Elkartean parte hartzen du.

2010eko irailean, Atarrabiako eta Burlatako udalek Hilarión Eslava Musika Eskolako Partzuergoaren estatutuak onetsi zituzten. Atarrabiako Udalak eskola horren kudeaketan parte hartu du 2012an, 105.644 euroko ekarpenarekin.

Laburbilduta, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Udal zerbitzuak	Udala	Mankomunitatea, Partzuergoa	Zerbitzu kontratua	Errentamendua
Zerbitzu administratibo orokorrak	X			
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	X			
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua	X			
0-3 urteko haur-eskolak	X			
Musika eskola		X		
Hirigintza			X	
Lorategiak	X			
Hiri-hondakinak		X		
Uraren ziklo integrala		X		
Garraio publikoa		X		
Liburutegia-ludoteka	X			
Kaleen eta bideen mantentzea	X			
Kirolak (instalazioen kudeaketa)				X
Kirol-jardueren kudeaketa	X		X	
Udal kiroldegiak			X	
Babestutako enplegu soziala	X			
Diru-bilketa exekutiboa			X	
Familien arretarako zentroa	X			
Familien arretarako zentroaren laguntza juridikoa	X			

Toki entitateari 2012ko ekitaldian aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Orokorra. Nafarroako toki entitateetan aplikatzekoa dena.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko uztailaren 2ko 11/2004 Foru Legea.

Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituena.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena.

Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

35/2002 Foru Legea, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzkoa.

Urriaren 26ko 13/2009 Errege Lege Dekretua, enplegurako eta tokiko iraungarritasunerako estatuko funtsa sortzen duena.

Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak, Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak, dira.

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.

Abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, tributu eta finantza arloko presako neurriei buruzkoa.

2/2012 Legea, ekainaren 29koa, 2012rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea, ekainaren 21ekoa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.

20/2012 Errege Lege Dekretua, uztailaren 13koa, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa.

Abenduaren 28ko 27/2012 Foru Legea, abenduaren 28koa, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko.

Abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea, abenduaren 28koa, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako eraginarekin, erosahalmenaren galera dela-eta.

Martxoaren 14ko 3/2012 Foru Legea, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea aldatu eta haren indarraldia luzatzen duena.

Abenduaren 21eko 246/2011 Foru Dekretua, Kontratuei buruzko Foru Legearen Europar Batasuneko atalaseak eguneratzen dituena.

- Berriazko araubidea:

2012ko aurrekontuaren betetze-oinarriak.

Tributuak arautzen dituzten ordenantzak.

Diru-laguntzak emateari buruzko oinarri arautzaileak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau ere barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2012ko kontu orokorraren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Aurrabiako Udaleko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Aurrabiako Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorraren araukotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia/ondorioa agertzea:

- Ea Aurrabiako Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2012ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- 2012an aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legedia zenbateraino bete den.
- Zein zen Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantza-egoera 2012ko abenduaren 31n.
- Ganbera honek 2011ko fiskalizazio-txostenean eman zituen gomendioak noraino aplikatu diren.

Txosten honetan, Udalean eta haren mendeko erakundeetan ezarritako barne kontroleko sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitzat jo ditugun aholkuak ere gehitu ditugu.

III. NORAINOKOA

Aurrabiako Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Entitatearen beraren kontua: Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.
- Kontu orokorraren eranskinak: Zorren oroitidazkia eta egoera-orria.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz eta azterlan honen helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz egin da lana, laginen teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa aplikatuz, besteren artean.

Zehazki, aurrekontuen eta finantza egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikatutako oinarritzko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne kontroleko alderdi nabarmenenak.

IV. 2012ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Atarrabiako Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau atera dugu:

IV.1. UDALAREN 2012ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA.

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da eta ez da eguneratu, ez eta kontabilitatearekin bateratu; beraz, ezin izan da egoera-balantzearen "Ibilgetua" atalaren arazoizkotasunaren ebidentzia lortu. Atal hori 34,8 milioikoa zen 2012ko abenduaren 31n (34,3 milioi 2011n).

Arestian aipatutako salbuespenaren ondorioei dagokienez izan ezik, Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi behinenetan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio biltzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2012ko ekitaldian Udalaren jardura ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkotasun printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2012ko ABENDUAREN 31n

Udalaren hasierako aurrekontuak 8,82 milioi euroko gastuak eta diru-sarrerak dauzka. Hasierako aurreikuspenak, aurrekontu-aldaketan bitartez, ehuneko 4,5 handitu dira; hots, 0,4 milioi gehitu dira, inbertsioak egiteko eta finantzatzeko helburu nagusiarekin.

Aitortutako betebeharrak 7,74 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 84ko betetze-maila izan dute. Nabarmentzekoa da finantza-pasiboen kapituluaren ehuneko 104 bete dela, eta finantza-aktiboen ehuneko 2 baizik ez dela bete.

Aitortutako eskubideek 8,76 milioi egiten dute, ehuneko 95eko betetze-mailarekin; ehuneko hori azal daiteke, funtsean, diru-sarrera arruntetan izandako betetze-mailarengatik –ehuneko 100ekoa–, nagusiki zeharkako zergen ondorioz. Inbertsio errealeen besterentzeari buruzko kapitulutik, 1,14 milioiko aurreikuspenekin, ez da ezer ere bete.

Gastuen izaerari begiratzuz gero, gastu arruntek eta inbertsioek gastu guztien ehuneko 89 eta ehuneko 6 osatzen dute, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntak diru-sarrera guztien ehuneko 89 dira; diru-sarrera horien ehuneko 48 jasotako transferentzietatik datoz.

Taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu diren gastuko 100 eurotik bakoitza:

Gastuaren izaera	Kopurua	Finantzaketa-iturria	Kopurua
Langileak	57	Tributu bidezko diru-sarrerak	41
Bestelako gastu arruntak	32	Transferentziak	48
Inbertsioak	6	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste batzuk	2
Finantza-zama	5	Zorpetzea	9
Guztira	100	Guztira	100

Hona Udalaren 2012rako aurrekontuaren betetzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2011koarekiko alderaketa:

	2011	2012	Aldea (%), 2012/2011
Aitortutako betebeharrak, guztira	8.205.390	7.744.880	-6
Betebehar ez-finantzarioak (1. kapitulutik 7.era)	7.767.372	7.383.719	-5
Likidatutako eskubideak, guztira	8.389.608	8.763.565	4
Eskubide ez-finantzarioak (1. kapitulutik 7.era)	7.826.341	7.963.565	2
Gastuen exekuzioa, %	82	84	
Diru-sarreraren betetzea (%)	84	95	
Ordainketak (%)	93	86	
Kobratutakoa (%)	93	91	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	7.062.140	6.913.754	-2
Funtzionamendu-gastuak (1., 2., eta 4. kapituluak)	7.000.181	6.855.927	-2
Inbertsioen gastuak (6. eta 7. kapituluak)	705.232	469.965	-33
Kapitaleko gastuak eta finantza-eragiketak (6tik 9ra)	1.143.250	831.126	-27
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	7.826.341	7.794.693	0
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	3.606.093	3.616.309	0
Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6tik 9ra)	563.267	968.872	72
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	49	48	
Gastu arrunten gaineko tributu bidezko diru-sarrerak (%)	51	52	
Saldo ez-finantzarioa	58.969	579.846	883
Aurrekontu-emaizta doitua	184.218	446.507	142
Aurrezki gordina	826.160	938.766	14
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	499.977	393.989	-21
Aurrezki garbia	326.184	544.778	67
Zorpetze-maila (%)	6,39	5,05	
Zorpetze-muga (%)	10,56	12,04	
Zorpetze-ahalmena (%)	4,17	6,99	
Diruzaintza-gerakina, guztira	-1.001.482	41.154	104
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-1.436.087	-165.628	88
Zor bizia	3.272.741	3.736.580	14
Diru-sarrera arrunten gaineko zor bizia (%)	42	48	
Zor bizia biztanleko	312	356	14
Finantza-zama / Diru-sarrera arruntak (%)	6	5	
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	4	4	

2012an, Udalak ehuneko 6 gutxiago gastatu du aurreko ekitaldian baino; hau da, 460.000 milioi gutxiago. Gastu txikiago horren justifikazioa da inbertsioak jaitsi egin direla. Hala eta guztiz ere, Udalaren diru-sarrerak ehuneko 4 handiagoak izan dira 2011n baino, nagusiki beste mailegu bat hartu delako kultur etxea finantzatzeko.

Izaera arrunteko gastuek ehuneko 2 egin dute behera; diru-sarrera arruntak, ordea, ia ez dira batere aldatu 2012an. Gastu arrunten gutxitzea kapitulu guztietan gertatu da.

Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa 59.000 eurokoa izatetik 580.000 eurokoa izatera pasa da.

Aurrekontu-emaizta doitua 450.000 euro positiboa da; aurreko urtean, ordea, 180.000 eurokoa izan zen.

2012an, bai aurrezki gordinak bai aurrezki garbiak gora egin dute aurreko ekitaldiarekin alderatuta, ezarri diren austeritate neurriak tarteko.

Udalaren zorpetze-maila ehuneko 5,05ekoa da, nahiz eta bere muga ehuneko 12,04 izan; ondorioz, zorpetze berria bereganatzeko ehuneko 6,99ko ahalmen ekonomikoa du. Ahalmen hori handitu egin da 2011koaren aldean, orduan 4,17ra iritsi baitzen.

Diruzaintzako guztizko gerakina 2012an positiboa da, 40.000 eurokoa; 2011n, ordea, minus milioi batekoa izan zen (negatiboa, beraz). Gastu orokorretarako gerakina ehuneko 88 murriztu da, baina 170.000 euroko zenbateko negatiboa izaten jarraitzen du; hona hemen nolako bilakaera izan duen magnitude horrek azken bost urteetan:

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	2008	2009	2010	2011	2012
Kopurua	-428.043	-1.326.260	-1.525.987	-1.436.087	-165.628

Horrenbestez, ikusten da 1,4 milioi inguruko diruzaintza-defizita izan dela 2009tik 2011ra. Hala eta guztiz ere, defizit horren zati handi bat kultur etxe berria eraikitzen etorri da; izan ere, aurreikusita zegoen hura kultur etxe zaharreko lurzorua salduz finantzatzea. 2012an, ordea, salmenta hori ez da egin, eta 800.000 euroko mailegu batekin finantzatu da eraikin hori.

Epe luzeko zorra 3,73 milioikoa da, eta ehuneko 14 egin du gora 2011koarekin alderatuta; zor hori –biztanle bakoitzeko 356 eurokoa dena, guztira– entitatearen diru-sarrera arruntan guztizkoaren ehuneko 48 da. Bada, ehuneko hori gaur egun zorpetze berria hartzea mugatzen duen ehuneko 110eko lege-mugaren azpitik dago.

Honakoa izan da aurrekontuaren betetzea 2006ko ekitalditik hasi eta 2012ra arte:

Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Deskribapena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
1. Langile-gastuak	4.000.762	3.996.864	4.374.125	4.569.994	4.566.293	4.481.340	4.445.875
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuak	1.840.457	2.201.101	2.336.606	2.325.846	2.128.795	1.972.135	1.918.646
3. Finantza-gastuak	138.588	169.420	181.450	89.802	59.259	61.958	57.827
4. Transferentzia arruntak	387.494	465.283	467.363	455.055	465.715	546.706	491.406
6. Inbertsio errealak	1.426.949	1.450.891	3.247.700	5.192.326	2.703.764	606.475	469.965
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	64.024	0	98.757	0
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	1.800	0	25.000
9. Finantza-pasiboak	353.891	355.849	318.876	366.810	409.120	438.018	336.162
Guztira	8.148.141	8.639.408	10.926.119	13.063.857	10.334.746	8.205.390	7.744.880

Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Deskribapena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
1. Zuzeneko zergak	2.699.409	2.347.357	1.974.811	2.379.169	4.566.293	2.442.820	2.416.640
2. Zeharkako zergak	247.521	165.163	256.483	51.244	2.128.795	238.939	321.295
3. Tasak eta bestelako diru-	944.772	902.856	954.002	856.417	59.259	924.334	878.374
4. Transferentzia arruntak	3.698.708	3.819.374	4.138.550	4.279.944	465.715	4.086.273	4.042.524
5. Ondare bidezko diru-	82.604	114.877	98.440	179.867	0	133.975	135.860
6. Inbertsio errealak	0	0	0	0	2.703.764	0	0
7. Kapital-transferentziak	654.132	457.571	1.419.803	4.554.185	1.800	563.266	168.872
9. Finantza-pasiboak	0	600.000	700.000	0	409.120	0	800.000
Guztira	8.327.146	8.407.199	9.542.088	12.300.826	10.334.746	8.389.608	8.763.565

Taulako datuetatik ondorioztatzen denez, Atarrabiako gastuak 2009ra arte igotzen joan dira, eta hurrengo urteetan, berriz, jaisten joan dira. 2012an 2006an baino txikiagoak izan dira. Aipatu beharra dago nabarmena dela egindako inbertsioen jaitsiera.

Diru-sarrerei dagokienez, gora egin zuten 2009ko ekitaldira arte, baina beherakada ez da gastuena bezain handia izan: 2006ko edo 2007ko kopuruetan geratu dira.

Horrenbestez, eta amaierako laburpen gisa, Atarrabiako Udalak, inbertsioen arloko gastuen euste garrantzitsua gorabehera, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinaren balio negatiboak izaten jarraitu du; alabaina, ez dira azken hiru ekitaldietakoak bezain handiak izan. Gainerako magnitudeetan, hobera egiten jarraitu du, jada 2010ean agertu zuen ildo beretik, bere gastu arruntei eustearen eta tributu bidezko diru-sarrerak handitzearen emaitza gisa.

Horregatik, bada, eta epe ertain baten barrurako bideragarria izango dela bermatzeko, bere gastu arruntak gehiago murrizteko eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko neurri sail bat aplikatzen jarraitu beharko du Udalak.

Bestalde, hirigintzako kudeaketari erreparatuta, indarra duen planeamendua ia buruturik dago, eta plan berria egiten ari da.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioak betetzeari dagokionez, Nafarroako Gobernuak bi informazio-ohar eman ditu, horietatik bi 2013an, egonkortasunari buruzko araudiaren alderdi zehatz batzuk garatze aldera.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioaren betetzea kalkulatu da Toki Korporazioei egokitutako Kontabilitate Nazionalaren Defizita Kalkulatzeko eskuliburua aplikatuz –eskuliburu hori Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiak egindakoa da–. Emaitza hurrengo taulan azaltzen da:

Kontzeptua	Kopurua
Gastu guztiak, I. kapitulutik VII. kapitulura	7.383.719
Diru-sarrera guztiak, I. kapitulutik VII. kapitulura	7.963.565
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	579.846
Finantzatzeko gaitasuna	579.846

Ikusten da ezen Atarrabiako Udalak aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren baldintzak betetzen dituela, zeren eta zorra ezarritako muga baino txikiagoa baita.

Fiskalizazioari buruzko iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arriskuen ondorioz dagoen egoera, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta exekuzioan zorrotz jokatzek eta funts publikoen erabileran gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Ganbera honen 2011ko ekitaldiko txostenari dagokionez, garrantziko aholku hauek oraindik gauzatzeke daude, txosten honen IV. atalean berresten den bezala:

- *Indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen epeen barruan onartzea aurrekontua.*
- *Udal-inbentarioa eguneratzea eta onestea.*
- *Finantzen egoera-orriak osatzen dituen beste egoera-orri bat balitz bezala osatzea memoria, garrantziko informazio guztia sartuta.*
- *Diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorra edo diru-laguntzen modalitateetarako ordenantza berriazkoak onestea.*
- *Udalaren hirigintzako plan berri bat onartzea.*
- *Lurzoruaren Udal Ondarearen inbentario eta erregistro independentea onartzea.*

V. UDALAREN 2012ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren azaltzen dira 2012ko kontabilitatearen egoera-orri garrantzitsuenak.

V.1. 2012ko AURREKONTU-BETETZEAREN EGOERA-ORRIA:**Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera**

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordaintzeke dagoena	Ordaintzeke dagoena (%)
1. Langile-gastuak	4.569.940		4.569.940	4.445.875	97	4.196.759	249.116	6
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	2.186.362		2.186.362	1.918.646	88	1.532.026	386.620	20
3. Finantza-gastuak	63.402		63.402	57.827	91	54.819	3.008	5
4. Transferentzia arruntak	502.452		502.452	491.406	98	296.726	194.680	40
6. Inbertsio errealak	78.000	400.000	478.000	469.965	98	319.315	150.650	32
7. Kapital-transferentziak	-		-	-	-	-	-	-
8. Finantza-aktiboak	1.102.246		1.102.246	25.000	2	0	25.000	100
9. Finantza-pasiboak	322.494		322.494	336.162	104	295.968	40.194	12
Guztira	8.824.895		9.224.895	7.744.880	84	6.695.613	1.049.268	14

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Behin betiko aurreikuspena kreditua	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	Kobratzeke dagoena	Kobratzeke dagoena (%)
1. Zuzeneko zergak	2.454.655		2.454.655	2.416.640	98	2.242.529	174.111	7
2. Zeharkako zergak	180.000		180.000	321.295	178	183.239	138.056	43
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	882.371		882.371	878.374	100	815.549	62.825	7
4. Transferentzia arruntak	4.024.826		4.024.826	4.042.524	100	3.816.294	226.230	6
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	136.102		136.102	135.860	100	11.140	124.720	92
6. Inbertsio errealen besterentzea	1.146.942		1.146.942	-	-	-	-	-
7. Kapital-transferentziak	-	159.964	159.964	168.872	106	80.875	87.997	52
8. Finantza-aktiboak	-	240.036	240.036	-	-	-	-	-
9. Finantza-pasiboak	-	-	-	800.000	-	800.000	-	-
Guztira	8.824.895	400.000	9.224.895	8.763.565	95	7.949.626	813.939	9

V.2. 2012ko AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2012	2011
+ Aitortutako eskubideak	8.763.565	8.389.608
- Aitortutako betebeharrak	7.744.880	8.205.390
= Aurrekontuaren emaitza	1.018.685	184.218
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	800.000	0
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	0
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzatutako gastuak	227.823	0
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	0	0
= Aurrekontu-emaitza doituak	446.507	184.218

V.3. DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2012ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2012	2011
(+) Kobratzeke dauden eskubideak	888.055	736.298
(+) Sarrerak: aurtengo ekitaldia	813.939	589.031
(+) Sarrerak: itxitako ekitaldiak	888.673	1.043.214
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	50.635	68.534
(+) Ordainketen itzulketa	1.304	2.793
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	811.175	932.170
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	55.320	35.103
(-) Ordaintzeke dauden obligazioak	2.035.143	2.052.608
(+) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	1.049.268	553.699
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	752.448	1.243.219
(+) Diru-sarreren itzulketak	0	0
(+) Aplikatzeko dauden gastuak	4.729	68
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	238.156	255.757
(+) Diruzaintzako funts likidoak	1.188.241	314.827
(+) Finantzaketa-desbideratze metatu negatiboak	0	0
= Diruzaintza-gerakina, guztira	41.154	-1.001.482
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	0
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	206.782	434.604
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-165.628	-1.436.087

V.4. 2012ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

Jardunean

Deskribapena	2012	2011
A. Ibilgetua	34.825.287	34.330.322
1. Ibilgetu materiala	26.251.447	26.090.567
2. Ibilgetu ez-materiala	1.355.111	1.355.111
3. Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	7.190.684	6.881.599
4. Herri-ondasunak	1.578	1.578
5. Ibilgetu finantzarioa	26.468	1.468
C Ibilkorra	2.949.323	2.020.269
8. Zordunak	1.754.550	1.703.572
9. Finantza-kontuak	1.194.773	316.697
Aktiboa, guztira	37.774.610	36.350.591

Pasiboa

Deskribapena	2012	2011
A Funts berekiak	31.942.839	30.990.071
1. Ondarea eta erreserbak	15.929.804	15.299.865
2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoak (mozkina)	783.896	629.940
3. Kapitaleko diru-laguntzak	15.229.138	15.060.266
C Epe luzeko hartzekodunak	3.736.580	3.272.741
4. Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	3.736.580	3.272.741
D Epe laburreko hartzekodunak	2.095.191	2.087.779
5. Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	2.039.872	2.052.675
6. Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	55.320	35.103
Pasiboa, guztira	37.774.610	36.350.591

V.5. 2012ko GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUA

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2012	2011	Deskribapena	2012	2011
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Bukaerako erosketak	0	0
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	443.910	452.857
61 Langileen gastuak	4.446.458	4.482.435	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	484.508	510.888
62 Gastu finantzarioak	57.827	61.958	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	2.095.512	1.961.730
63 Zergak	0	0	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	502.569	481.033
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	1.918.062	1.971.041			
65 Gizarte-prestazioak	0	0	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	4.042.524	4.086.273
67 Transferentzia arruntak	491.406	546.706	77 Kapitalaren gaineko zergak	139.854	238.995
68 Kapital-transferentziak	0	98.757	78 Bestelako diru-sarrerak	85.816	94.564
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidurak	0	0	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	0	0
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (Saldo hartzekoduna)	880.939	665.445	Ekitaldiko emaitza arrunta (Saldo zorduna)	0	0
Guztira	7.794.693	7.826.341	Guztira	7.794.693	7.826.341

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2012	2011	Deskribapena	2012	2011
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	880.939	665.445
82 Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo zorduna)	0	691	82 Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo hartzekoduna)	176	0
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (Saldo zorduna)	97.219	34.815	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	0	0
89 Etekin garbia guztira (Saldo hartzekoduna)	783.896	629.940	89 Galera garbia, guztira (Saldo zorduna)	0	0
Guztira	881.115	665.445	Guztira	881.115	665.445

VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ENTEEI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko gomendio eta iruzkin nagusiak emango ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- Aurrekontua 2012ko maiatzaren 21ean onetsi zen hasiera batez, eta urte bereko ekainean eman zizaion behin betiko onespena.
- Udalaren inbentarioa, zeina 1995ekoa baita, gaurkotzeko eta onesteko dago.
- Ez da aurkitu nabarmentzeko moduko zenbatekoa duen 2012ko fakturarik, 2013ko aurrekontuari egotzi zaionik.
- Udalak 2012an hornitzaileei ordaintzeko erabili duen epeari buruzko azterketa eginik, ondorioztatzen da ezen, aztertutako laginari erreparatuta, arau indardunetan ezarritakoa betetzen ari dela, oro har. Ez da berandutza-interesik ordaindu hornitzaileei egindako ordaintetengatik.
- Atxikitze-poltsa batzuetan bildutako gastuetarako kredituen muga-izaera ez da beti errespetatu izan.
- Kontu orokorrekarekin batera ez da kontabilitate publikoko plan orokorrek adierazten duen kontabilitate-oroitidazkia azaldu.
- Antzinako fidantza batzuk badaude, aztertu behar direnak eta, kasua bada, erregularizatu behar direnak.
- Honakoa da epe luzeko zorra amortizatzeko egutegia, 2012ko abenduaren 31n:

<i>Ekitaldia</i>	<i>Amortizazioa</i>	<i>Ehunekoa</i>	<i>Ehuneko metatua</i>
2013	409.987	11	11
2014	393.014	11	21
2015	428.202	11	33
2016-2020	1.608.854	43	76
2021-2025	725.463	19	95
2026-2030	171.062	5	100
Guztira	3.736.580	100	

VI.2. LANGILEAK

Langileen gastua 4,45 milioi eurokoa da; hau da, 2012an sortutako gastu guztien ehuneko 57 eta gastu arrunten ehuneko 64.

2011ko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu hau ehuneko 1 gutxitu da, honako xehetasunen arabera:

	Aitortutako betebeharrak		Ehunekoa
	2011	2012	Aldea (%)
Goi-karguak	111.112	111.701	0,5
Langile finkoak	2.622.248	2.575.384	-1,7
Aldi baterako lan-kontratua	250.647	222.626	-11,1
Gizarte zamak	1.497.333	1.468.731	2,8
1. kapitulua, guztira	4.481.340	4.445.875	-0,8

Udalbatzak 2012ko maiatzaren 24an onartu zuen 2012ko ekitaldiko plantilla organikoan 105 lanpostu daude jasota –horietatik 26 lanpostu bete gabe daude–, ondoko taula hauetan erakusten den bezala banatuta:

	Lanpostuen kopurua	Jardunean	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak.
Funtzionarioak	54	46	8	8
Lan-kontratadun finkoak	51	33	18	2
Guztira	105	79	26	

2012ko abenduaren 31n, Udalean 103 pertsonak egiten dute lan guztira. Hona xehetasunak:

Langileak	Kopurua
Funtzionarioak	46
Lan-kontratadun finkoak	33
Aldi baterako lan-kontratadunak	24
Guztira	103

Aldi baterako langileen barruan, zortzi kontratu administratibodun langile eta amortizatzeke edo behin betiko betetzeko dauden hamasei lanpostu daude.

Udalaren aipatutako langileak honako arloei daude atxikiak:

Arloak	Kopurua
Kultur zerbitzua	1
Ikastetxeak	11
Amalur haur-eskola	26
Udal eraikinen garbiketa	2
Obrak eta zerbitzuak	10
Bulegoak	12
Udaltzaingoa	20
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	16
Udalaren kirol zerbitzua	5
Guztira	103

Garbiketako 10 lanposturen kontratazio prozedurak aztertu dira. Kontrolaren emaitza da prozedura horiek zuzenak izan direla.

Langile-gastuen lagin bat aztertuta, honako ondorioak atera ditugu: oro har, langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daude; ordaindu diren lansariak betetako lanposturako erabakitakoak dira; ordainsari horiek 2012an izoztu dira, eta egindako atxikipenak zuzenak dira.

Udalak ez zien bere langileei ordaindu 2012ko abenduko aparteko soldata, Aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretua aplikatuta, baina abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legearen babesean, ordaintzeko betebeharrak bat aitortu zuen kontzeptu hori dela eta. Betebeharrak hori 2013ko urtarrilean ordaindu zuen. Foru lege horrek, bere artikulua bakarrean, xedatzen du 2012an Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei osagarri pertsonal bat ordainduko zaiela, erosahalmenaren galera dela-eta, 2012ko ekainean jasotako aparteko ordainsariaren zenbatekoaren parekoa.

28/2012 Foru Legeak 2013ko urtarrilaren 3an hartu zuen indarra, NAO-n argitaratu eta biharamunean. Horrek zalantza batzuk planteatu ditu 2012rako aurreikusten dituen neurrien baliaeratasunari buruz. Hori dela eta, "2013an foru lege hori aplikatuz Nafarroako toki entitate batzuek hartutako neurrien segurtasun juridikoa bermatzeko", Nafarroako Parlamentuak uztailaren 2ko 25/2013 Foru legea onetsi zuen, zeinak 28/2012 Foru Legea aldatzen baitu, 2013ko abuztuaren 31ra arte luzatzen baitu Nafarroako administrazio publikoek beren langileei ordaineko osagarria pagatzeko. Foru lege horren aurka, uztailaren 30ean, konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa aurkeztu zen, Konstituzio Auzitegiak onetsia; izan ere, auzitegi horrek haren aplikazioa bertan behera utzi zuen 2013ko irailaren 14an.

Kontraesan dagoen araudia eta aurkeztutako errekurtsioak direla eta, jotzen dugu egoera honetarako behin betiko konponbidea instantzia judizial eskudunek hartzen dituzten erabakien menpe egonen dela.

10. artikuluan, "Goi-karguak", Alkatetzaren ordainsariak zein zinegotziek Udalbatzaren saioetan, kide anitzeko organoetan eta Udalbatzak onartutako batzorde informatiboetan parte hartzeagatik jasotzen duten diru-saria kontabilizatu dira.

Egiaztatu dira zinegotziei egindako ordainketak, osoko bilkuretar, tokiko gobernu-batzarrerara, batzordeetarako eta abarretara joateagatik 2012an egindakoak. Egiaztatu dugu erabateko kontrola dagoela bilera horietara egiazki joateari buruz, eta zinegotzi guzti-guztiei, gehienez 423 euro ordaintzen zaizkiela hilean, zeren eta kasu guztietan gehieneko kopurua gainditzen baitute joaten diren saioekin. Kopuru horiek, zeinak 2010eko ekitaldiko bigarren seihilekotik izoztuta baitaude, honakoak dira:

- Osoko bilkurara joatea: 250 euro.
- Informazio-batzorde batera joatea: 100 euro.
- Gobernu-batzarrerara joatea: 100 euro.

Araudi horren arabera, zinegotziek 2012an guztira jasotako ordaina 71.945 eurokoa da, eta ez da aurkitu Udalaren barne araudiaren ez-betetzerik.

VI.3. GASTUAK, ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan eginiko gastuek 1,92 milioi euro egin dute 2012ko ekitaldian; guztira, ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 25 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 28 egiten dute. 2011. urtearen aldean, ehuneko 3 jaitsi dira.

Gutxitze hori, 2011ko datuekin alderatuta, justifikatzen da, funtsean, austeritaterako eta gastuei eusteko neurriak jarri direlako.

2012ko ekitaldian ez da muntako kontratu bat bera ere esleitu. Kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bat aztertuta, egiaztatu da ez dela kontratuen indarraldiari buruzko kontrol eta jarraipen zorrotzik egiten, eta kontratu bat detektatu da 1997. urtetik luzatzen ari

dena. Halaber, zenbait kasutan izan den gastu-bolumena ikusita, beharrezkoa zatekeen zenbatekoari egokitutako kontratazio-prozedura bat izapidetzea.

Gure gomendioak:

- *Kontratuen indarraldiari buruzko kontrol eta jarraipen zorrotza egitea.*
- *Urteko gastuaren bolumena aldez aurretik balioets daitekeen kasuetan, behar diren kontratazio-espeditenteak izapidetzea.*

VI.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Horrelako gastuek 0,49 milioi egin dute, eta 2012an sortutako gastu guztien ehuneko 6,34 dira.

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%), 2012/2011
	2011	2012	
Foru Komunitateko Administrazio Orokorrari	4.964	3.039	-39
Mankomunitateei	216.482	188.079	-13
Batasun tradizionaleri eta bekei	6.025	5.994	-1
Partzuergoei	35.039	34.256	-2
Familiei	48.753	48.657	0
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	113.642	111.188	-2
Bestelako transferentziei	82.735	85.192	3
Kanporako	39.064	15.000	-62
4. Transferentzia arruntak	546.706	491.406	-10
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	98.757	-	-100
7. Kapital-transferentziak	98.757	-	-100
Guztira	645.463	491.406	-24

2011rekin alderatuta, gastu horiek ehuneko 24 jaitsi ziren funtsean kapital-transferentziarik izan ez delako. 2011n, ia 100 mila euroko kalte-ordaina ordaindu zen lursail baten salmenta dela-eta izan den auziaren ondorioz.

Honakoak dira 2012an emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

Onuraduna	Kopurua
Mankomunitateak	188.079
Hilarión Eslava Musika Eskola	105.644
Beti-Onak	16.167
Karrikaluze	9.500

Egindako lanaren arabera, nabarmendu nahi dugu Udalak ez duela diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorrik, ezta, oro har, diru-laguntzen modalitateetarako ordenantza berezirik; diru-laguntzak, beraz, Alkatetzaren / zinegotzi ordezkariaren ebazpen bidez edo hitzarmen bidez arautzen dira.

Diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorra edo diru-laguntzen modalitateetarako ordenantza berriazkoak onestea gomendatzen dugu.

VI.5. INBERTSIOAK

2012. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (0,48 milioi) ehuneko 98 bete da, eta 0,47 milioira iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldiko betebeharrak guztien ehuneko 6.

2011ko ekitaldioekin aldean, inbertsioek ehuneko 22 egin dute behera.

Honakoak izan dira 2012an egindako inbertsio nagusiak (BEZik gabeko zenbatekoak):

Inbertsioa	Kopurua
Arga, Ultzama, Donapea eta Errondoa kaleetan zoradura jartzea	81.965
Atargi eta L. Goikoa ikastetxeetan koadro elektrikoak berritzea	44.890
Aldapa plazan eta E. Armendáriz zeharkalean zoladura jartzea	12.003

2012ko ekitaldian ez da muntako kontratu bat bera ere esleitu. Aipatu berri ditugun zolatze-lan horiei dagokienez, esan beharra dago obrak Iruñerriko Mankomunitatearekiko lankidetzahitzarmenaren barruan egin zirela eta mankomunitatea izan zela kontratazio-prozeduraz arduratu zena.

VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2012ko ekitaldian aitortutako eskubideak 8,76 milioioak izan dira; ehuneko 89 eragiketa arruntengatiko diru-sarrerari dagozkien eta ehuneko 11, berriz, kapital-eragiketari.

Diru-sarrera arruntan artean tributuen bidezko diru-sarrerak (3,6 milioi eurokoak) eta transferentzia arruntak (4 milioi eurokoak) nabarmen izan dira. Kapital-eragiketetan, mailegu berria nabarmendu behar da (0,8 milioi eurokoa da).

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 95,88koa izan da.

Ez dago hirigintzako eragiketen bidezko diru-sarrera nabarmenik.

2011. urtearen aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko 4 egin dute gora. Hona xehakapena:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%), 2012/2011
	2011	2012	
1. Zuzeneko zergak	2.442.820	2.416.640	-1
2. Zeharkako zergak	238.939	321.295	34
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	924.334	878.374	-5
4 Transferentzia arruntak	4.086.273	4.042.524	-1
5 Ondare bidezko diru-sarrerak	133.975	135.860	1
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	7.826.341	7.794.693	0
6. Inbertsioen besterentzea	0	0	-
7 Kapital-transferentziak	0	168.872	-
8. Finantza-aktiboak	563.267	0	-100
9. Finantza-pasiboak	0	800.000	-
Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6tik 9ra)	563.267	968.872	72
Diru-sarrerak, guztira	8.389.608	8.763.565	4

Ikusten da finantza-pasiboen bidezko diru-sarrerak nabarmen egin dutela gora –ehuneko 72–, hartutako 0,8 milioi euroko mailegu berriaren ondorioz.

Ondorengo taulan udal zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Diru-sarrereren kapituluak	Aitortutako eskubideak		Aldea (%),
	2011	2012	2012/2011
Lurraren kontribuzioa	1.585.088	1.625.142	3
Ibilgailuak	481.033	502.569	4
Lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	238.996	139.854	-41
JEZa	137.703	149.075	8
EIOZa	238.939	321.295	34
Guztira	2.681.759	2.737.935	2

Aldaketa handienak lursailen balio-gehikuntzan gertatu dira, zeren eta ehuneko 41 jaitsi baitira; EIOZak, berriz, ehuneko 34 egin du behera, funtsean etxebizitza berriak ematearen ondorioz. Hala eta guztiz ere, aipatu beharra dago 135.000 euroko aitortutako eskubide batean, kobrantza 99.000 eurokoa izan dela, amaierako kostua hasieran aurkeztutako aurrekontuko baina txikiagoa izan delako. Kopuru hori kontuan hartuta, gehikuntzaren egiazko portzentajea ehuneko 20koa da, eta ez ehuneko 34koa.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortako tarte ertain-altuan kokatzen dira, ondoko taula honetan ikus daitekeen bezala:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,32	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga		
Gaurkotzearen koefizientea	3,2 - 3,4	2 eta 3,8 bitarte
Zerga-tasa	14	8 eta 20 bitarte
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	5	2 - 5

Tasa horiek izoztu egin dira 2011koen aldean, lurraren kontribuzioarena salbu, horrek ehuneko 3 egin baitu gora.

Diru-sarrereren aurrekontuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, aipagarriak iruditu zaizkigu honako datu hauek:

- Tasek eta prezio publikoek eta tarifek eusten dieten kostuen azterketak ez dira eguneratzen.

- EIOZean, ez dago jasota behin betiko likidazioa beti egiten denik burututako obraren benetako kostuaren arabera. Nolanahi ere, gaur egun, tributuak ikuskatzeko planaren barnean, azpimarra jartzen ari da zerga horren berrazterketan.

Egindako berrazterketan, ikusi dugu ezen, kasu batzuetan, alde adierazgarri bat gertatu dela hasieran kalkulaturako zenbatekoaren eta amaierako likidazioaren artean, eraikitzaileek aurkeztutako amaierako exekuzioa hasieran aurkeztutakoa baino txikiagoa izan delako.

Gure aholkuak:

- *Tasek eta prezio publikoek eragiten dituzten kostuen azterketa eguneratzea.*
- *EIOZaren amaierako likidazioa egitea obraren egiazko kontuaren arabera eta berrikustea ea amaierako exekuzioaren aurrekontua koherentea den.*

VI.7. HIRIGINTZA

Atarrabiako Udalak ez du organo berezirik edo erakunde instrumentalik osatu hirigintzaren kudeaketarako. Administrazio-zerbitzu orokorren bitartez kudeatzen da.

Alor horretan laguntzeko, Udalak arkitekto baten, ingeniari baten eta arkitekto tekniko baten aholkularitza-zerbitzuak ditu kontratatuta. 2012an, kontratu horiek 37.132 euroko gastua eragin dute, aurreko ekitaldian baino ehuneko 0,4 handiagoa.

Atarrabiako Udalaren Lurraldearen Antolamenduari buruzko Plana 1996an onetsi zen. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– indarrean dauden planeamenduak homologatzeko eta egokitzeko. Udalak, gaur arte, izapideak hasi ditu Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakora egokitzeko, plan orokor berri bat egiteari dagokionez. Plan hori izan ere, 2007ko maiatzean egin zen, baina onetsi gabe dago.

Ganbera honek nabarmendu nahi du luze jotzen ari dela hirigintza-planeamendu berria taxutu eta onesteko prozesua, nahiz eta tresna hori funtsezkoa izan udal plangintza eta kudeaketa egokietarako.

2013ko ekitaldian herritarrek parte hartzeko prozesu bati ekin zaio, udal plan orokor berria egiteko espedienteari bultzada eman nahian.

Udalak ez du Lurraren Udal Ondarearen erregistro eta inbentario berezirik, ezta ondare horren konposizio baloraturik ere.

Gure aholkuak:

- *Udalaren hirigintzako plan berri bat onartzea.*
- *Lurzoruaren Udal Ondarearen Erregistroa sortzea, LFOTUn aurreikusten dena beteaz.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an
Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

